## GIDA DIDAKTIKOA

# LGTBI+ KOMUNITATEAREN ESKUBIDEAK HILABETEZ HILABETE





UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

+tu

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

GOBIERNO VASCO
PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
*Dirección de Víctimas y Derechos Humanos*

**Edukien egileak**
Zaira García Dafonte (Gehitu, Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bixesual eta Intersexualen elkartea)

**Ilustrazioak**
Teresa Castro

**Koordinazioa**
Begoña Guzmán eta Eva Quiroga (UNESCO Etxea)

**Euskarazko itzulpena**
Maitane Ugarte (Bakun SL)

**Maketazioa**
Binari Comunicación S.L.L.

**Inprenta**
Printhaus S.L.

**Lege gordailua**
BI 01751-2020

UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

GOBIERNO VASCO
PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

# AURKIBIDEA

**UNESCO ETXEAREN HITZAURREA** 4
**SARRERA** 5
**MATERIAL DIDAKTIKO HAU ERABILTZEKO AHOLKUAK** 6
**ZEHARKAKO JARDUERAK** 7
**JARDUERAK HILABETEZ HILABETE** 7
- **Urtarrilak 27.** Holokaustoko Biktimak Oroitzeko Nazioarteko Eguna. 8
- **Otsailak 19.** Kiroleko Lgtbi+Fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. 12
- **Martxoak 8.** Emakumearen Nazioarteko Eguna. 16
- **Apirilak 26.** Lesbianen Ikusgaitasunaren Eguna. 20
- **Maiatzak 17.** Lgtbi+Fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. 24
- **Ekainak 28.** Lgtbi+ Harrotasunaren Eguna. 28
- **Uztailak 14.** Genero Ez Bitarraren Ikusgaitasunaren Eguna. 32
- **Abuztuak 31.** Elkartasunaren Nazioarteko Eguna. 34
- **Irailak 23.** Bisexualitatearen Ikusgaitasunaren Eguna. 36
- **Urriak 26.** Intersexualitatearen Ikusgaitasunaren Eguna. 40
- **Azaroak 20.** Haurren Nazioarteko Eguna eta Transgeneroen* Oroimenaren Eguna. 44
- **Abenduak 10.** Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna. 48

**BIBLIOGRAFIA** 52
**I. ERANSKINA: KARTAK - EMAKUME DIBERTSITATEA** 60
**II. ERANSKINA: TRIVIAL LESBIKOA** 95
**III. ERANSKINA: GORPUTZ ANIZTASUNAK. IKUS DITZAGUN!** 99

# UNESCO ETXEAREN HITZAURREA

2018ko abendutik 2019ko urtarrilera bitartean, UNESCO Etxeak, Ventana a la Diversidad elkartearekin batera, *LGTB+ Aniztasunera Leihoa, Lehenengo Euskadi-Iberoamerika Topaketa* antolatu zuen. Topaketa horretan, LGTBI+ pertsonen eskubideen alde diharduten hainbat erakundek parte hartu zuten, hala nola Gehitu-k (https://www.gehitu.org/), Aldarte-k (http://www.aldarte.org/es/) eta Mosuak Elkarteak. Aukera paregabea izan zen metodologia sortzaile, kulturarteko eta feminista baten bidez lan egiteko. LGTBI+ kolektiboen barneko feminitate eta maskulinitate aniztasunaren alternatibak agertu ziren, eta haien arazoak salatu, ikusgai egin nahian zer-nolako errealitatea bizi duten generoaren arau-sistematik baztertutako pertsonek egunez egun.

Topaketa hartako hausnarketek eta elkarlanak bultzatuta, elkarrizketak abiatu ziren Gehitu elkartearekin (Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bixesual eta Intersexualen elkartea), batez ere Gipuzkoan. Horri esker, Teresa Castrok (Gehituko presidente ohia eta ilustratzailea) bat egin zuen GizARTE Sarearekin, hau da, Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarearekin (https://gizarteweb.wordpress.com/). Hain zuzen ere, UNESCO Etxeak koordinatzen du sare hori.

Horren ondorioz, interesgarritzat jo zen elkarrekin lan eginez hezkuntza-programa bat garatzea, arte-diziplinei eta haien metodologiei balioa emanda, sexu- eta genero-dibertsitatearekin lotutako edukiak lantzeko. Eta horretarako sortu genuen argitalpen hau, ikusgaitasuna eta balioa emanez LGTB+ kolektiboen nazioarteko egunei eta borrokei.  Zaira García Dafonte da fitxa didaktikoetako edukien sortzailea, eta Teresa Castrok egin ditu ilustrazioak; zehazki, bere pertsonaia ezagun bat dakarkigu, LesbiANITA, eta, oraingoan, baita haren lagun-taldea ere: LGTB+kuadrilla.

# SARRERA

Aniztasun edo dibertsitate afektibo-sexualak –edota, besterik gabe, dibertsitate sexualak, ulertuta ***sexualitate*** hitzarekin alderdi afektiboa ere kontuan hartzen dela– barnean hartzen ditu gorputz-errealitate guztiak, sexu-orientazio guztiak, identitate guztiak eta genero-adierazpen guztiak. Dibertsitate sexuala eta generokoa (DSG) sigla hauen bidez ere defini daiteke: LGTBI+; hau da, lesbiana, gay, trans*, bisexual eta intersexualak. Plus ikurraren bidez, gizakien artean egon daitezkeen askotariko sexualitate guztiak adierazi nahi dira; alegia, dibertsitate afektibo-sexuala. Izan ere, hain denez dinamiko eta aldakorra, ezinezkoa da erabateko taxonomia bat egitea.

Dibertsitate sexuala edo LGTBI+ hitzak erabiliz, aukera guztiak egin nahi dira ikusgai, heterosexualitateaz eta zisexualitateaz harago. "Ezinbestekoa da aipatzea heterosexualitatea eta zisexualitatea (...) direla, gaur egungo gizarte modernoetan arau gisa hartzen direnak; hori dela eta, gainerako portaera eta identitate afektibo-sexualek oraindik ere ez daukate «norma-litaterik» gure gizartean" (ARARTEKOA, 2012). Hori dela eta, feminismoaren eta ekintza positiboaren ikuspegia hartuta landu da dokumentu hau, eta pribilegiorik gutxienekoak ere ikusgai egin nahi izan dira LGTBI+ siglen barruan.

Hainbat eta hainbat ikerketa nahiz teoriak diote ezinbestekoa dela hezkuntza-sisteman gai horri heltzea; zehazkiago, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH). Hain zuzen ere, giza garapenaren aro hori hautatu da, hor eraikitzen eta finkatzen delako identitatea, eta nerabeek hor zehazten dituztelako gainerako pertsonekiko harremanak eta balioak, hau da, hor gertatzen da garapen etiko eta kognitiboa, helburutzat duena bai autonomia morala garatzea bai autonomia moral horretara iristeko gaitasuna garatzea (Fierro, 2000). Era berean, etapa horretan rol sexualak eta generokoak areagotu egiten dira (Eccles eta Bryan, 1994 in Martxueta, 2012), eta, beraz, oso garai zaurgarria eta aztoramendu handikoa da alderdi askotan. Hori guztia dela eta, oso une aproposa da nahikoa tresna eta/edo tresna egokiak lantzeko eta barneratzeko, eta, hala, bizitzari aurre egiteko.

Amaitzeko, azalduko dugu Nazio Batuen Batzar Nagusiak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu eta aldarrikatzean, honako hau eskatu ziela herrialde kide guztiei: ***"banatu, erakutsi, irakurri eta komentatu zezatela testua ikastetxe nahiz bestelako irakaskuntza-zentro guztietan, herrialdeen edo lurraldeen izaera politikoa edozein izanda ere"***, hala, bada, honako dokumentu hau printzipio horietan oinarrituta dago eta hainbat proposamen egiten ditu desberdinkeriak minimizatzeko.

# MATERIAL DIDAKTIKO HAU ERABILTZEKO AHOLKUAK

- Erabili hizkera ulerterraza eta hurbila, taldearen adin edo ezaugarrietara egokitua.
- Ez jo denak heterosexual edo zisexualtzat. Kontuan izan taldean LGTBI+ pertsonak egon daitezkeela.
- Sortu konfiantza-giroa, goxoa eta hurbila, helburuak barneratzea errazagoa izan dadin.
- Sustatu elkarrizketa, bakarrizketa baino gehiago. Entzun ikasleei.
- Ez saiatu konbentzitzen edo doktrinatzen. Hausnarrarazi, informazio kontrastatua eta egiazkoa erabiliz.
- Diskriminazio- edo gutxiespen-jarrerak gertatzen badira, hobe da lasai hartzea eta argitzea iritzi horiek diskriminatzaileak eta kaltegarriak direla beste pertsona batzuentzat.
- Balioa eman ikasleek dibertsitatearen alde dituzten iritziei. Sustatu ikasleak iritzi diskriminatzaileen aurka altxatzea eta parte hartzea.
- Dokumentu honetan ageri diren egunez gain, baliteke ikaslearentzat hurbilagoak diren beste erreferentziazko egun batzuk egotea zuen herrian. Hala izanez gero, gure gomendioa da egun edo/eta jarduera hurbilenekin lan egitea beti.

# ZEHARKAKO JARDUERAK

Zeharkako hiru jarduera proposatzen ditugu, hau da, komeni denean eta/edo aukerako hilabetean lantzekoak.

> Zinegoak LGTBI+ Zinema Jaialdira irteera bat egitea, hilabete horretako nahiz beste hilabete bateko gai bat lantzen duen film labur bat, dokumental bat edo film bat ikustera[1].

> Dibertsitate sexualari eta generokoari buruzko glosario bat sortzea, bakarka nahiz taldean, eta banatzea.

> Ikasgelako edo ikastetxeko jokabideari buruzko dekalogo bat sortzea, bertan jasoz bai LGTBI+ pertsonak babesteko konpromisoak, bai dibertsitate sexualaren eta generokoaren (DSG) aurkako erasorik edo errespetu faltarik gertatuz gero nola erantzungo den.

# JARDUERAK HILABETEZ HILABETE

Hemen aurkituko dituzun zenbait dinamika egokitu egin daitezke nazioarteko beste egun edo gai batzuetara, eta beste hilabete baterako utz daitezke.

1 http://zinegoak.com/EU/festival/

# URTARRILA



## URTARRILAK 27

### HOLOKAUSTOKO BIKTIMAK OROITZEKO NAZIOARTEKO EGUNA


LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: BIDEO-JOKOKO TXAKETERA – HOLOKAUSTOKO BIKTIMAK OROITZEKO EGUNA
TERESA CASTRO @tcastrocomics
¡FLIPATUTA NAGO GELAN BIGARREN MUNDUAZ KONTATU DIGUTENAREKIN.
AURREKOAN, NEUK BAKARRIK HIL NITUEN ETSAI GUZTIAK...
BAI, ANITA! BELDURGARRIA BENETAN!
¡A ZER SARRASKIA EGIN ZUEN BIBOTEDUN ÑAÑARROAK! JENDE MORDOA AKABATU ZUEN!
BIBOTEDUN HORI JOKALARI BIKAINA IZANGO ZEN FORTNITEN!
OKERREN BAT EGINGO ZUTEN, EZTA? BESTELA, ZERGATIK?
NI BEZALA... ¡RATATA..!
BA NIK EZ DUT USTE EZER TXARRIK EGIN ZUTENIK. ZIREN BEZALAKOAK IZATEA, BESTERIK EZ.
TIRA, TIRA, IXO! NOLA HIL DAITEKE HAINBESTE JENDE HORRELA, BESTERIK GABE?
NIK FORNITEN BEZALA...
BAINA BERA BEZALAKOAK EZ ZIRENAK SOILIK HILTZEN ZITUEN...
A ZER AITZAKIA!
EZ DAKIT, BA, TALDE HONETAKO INOR LIBRATUKO LITZATEKEEN. EZ DUT USTE GU BEZALAKO PERTSONAK OSO GOGOKO ZITUENIK.
BERAZ... HOBIRA... FORNITEN BEZALA.
BAINA NI GOGOKO IZANGO NINDUEN, SEGURU.
TIRA, RAUL, EZ EMAN LAMENA DITXOSOZKO BIDEO-JOKO HORREKIN...
ONDO DA, ITZI... BIZIRIK ATERAKO ZINELA, BAINA...BEGIRA NOREKIN BILTZEN ZAREN! BAKAR-BAKARRIK GERATUKO ZINEN!
¡JAKINA!, AURREKOAN NI HOBEA IZAN NINTZENEZ...
ASPERTU EGINGO ZINEN.
BAI ZERA! NI GABE EZ ZENUEN BATAILA IRABAZIKO, SEGURU...
GEZURRA! NEURE KABUZ IRABAZI NUEN...
LASAI! ERREBANTXAKO PARTIDA JOKATUKO DUGU?
ENE, ITZI! EZ DAKIT GUREKIN JOKATU AHAL IZANGO DUZUN, "BIBOTEDUNAREN KUTTUNA" IZANDA!
PUFFF...
UTZIDAZUE JOKATZEN! ZUEN LAGUN MINA NAIZ, EZTA? BETI EGITEN DUT ZUEN ALDE.
TXAKETERA ALAENA!

## AURKEZPENA

1945eko urtarrilaren 27an, Sobiet Batasuneko soldaduek Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio- eta deuseztatze-esparrua askatu zuten. Hainbat urtetan, nazismoak milioika pertsona judu hil zituen, bai eta gizarterako baliozkotzat jotzen ez zituen pertsonak ere: ijitoak, desgaitasunak zituzten pertsonak, gay eta lesbianak, etab. Soldaduek pertsona bakoitza han zergatik zegoen jakin zezaten, presoei kolore desberdineko triangelu bat edo bi josten zieten arropan[2]. Bestelako ikur batzuk ere josten zizkieten, preso sartutako pertsonaren ezaugarrien arabera. Hala, gerta zitekeen pertsona baten zenbait ezaugarrik diskriminazio-egoera bat baino gehiago sortzea; beraz, preso zeuden pertsonen artean ere maila desberdinak zeuden, eta homosexualak ziren gaitzetsienak.

## HELBURUAK

- LGTBI+ kolektiboaren borrokaren sinboloak zein diren jakitea.
- Komunitatearen historiaren zati bat ezagutzea.
- Askotariko zapalkuntzak daudela ikusarazten hastea.

**1 30'**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Lehenbizi jokoa egin eta ondoren azalpena landu daiteke, edota alderantziz. Paralelismoa argi geratzea da garrantzitsuena.



2 Ikus “Sistema de marcación nazi”: https://encyclopedia.ushmm.org/content/es/article/classification-system-in-nazi-concentration-camps

NOLA JARDUN

## URRATSEN JOKOA

Pertsona bakoitzak galdera hauetako bakoitzari baietz erantzunez gero, gomet/eranskailu bat emango zaio, dagokion kolorekoa[3]:

- Horia: Euskal Herrikoa zara?
- Gorria: Zeure ideia propioak izatea atsegin duzu?
- Berdea: Gaur, gosaldu al duzu?
- Arrosa: Pizza gustatzen zaizu?
- Beltza: Saiatzen al zara ikasketak aurrera ateratzen?

Eranskailuak besoan jarriko dituzte. Ikasle guztiak ilaran jarriko dira, abiapuntu batean baleude bezala. Azalduko zaie 20 urrats egin behar direla ikasgelako beste aldera iristeko, baina 4 urrats gutxiago izango dituztela gomet bakoitzeko. Bakoitzak dagozkion urratsak egingo ditu. Ikasle batzuk aurrean geratuko dira, eta beste batzuk atzerago.

Galdetuko diegu ea zergatik geratu diren leku desberdinetan, hau da, helmugatik batzuk hurbilago beste batzuk baino.

Azalduko diegu, joko honetan bezala, gizarteetan ere –eta kontzentrazio-esparruetan gertatzen zen bezala– zenbait ezaugarrik ez dietela uzten pertsonei beren helburuetara hurbiltzen edo bizirik irauten.

Naziek triangelu eta koloreen bidez jendea markatzeko zer-nolako sistema erabiltzen zuten azalduko diegu, eta jokoaren eta errealitatearen arteko paralelismoari buruz gogoeta egingo dugu.

Amaitzeko, azalduko dugu LGTBI+ kolektiboak bere egin zuela triangelu arrosa, borrokaren sinbolotzat hartuta.

GOGOETA

II. Mundu Gerra amaitzean, triangelu arrosak (gay-ak) eta beltzak (lesbianak, eta “beste batzuk”) homosexualen ikur bihurtu ziren, jabetze-prozesu baten bidez, kolektibo horretan hildako pertsona guztien omenez. Geroago, bandera koloreaniztuna ere LGTBI+ komunitatearen ikur bihurtu, eta nagusitu egin zen.

3 Galderek badute nolabaiteko erlazio logikoa nazismoak erabilitako koloreekin. Kolore horiak identitate kulturala adierazten du; gorriak, pentsamendu politikoa; berdeak, epaitu egiten diren ekintzak; kolore arrosa gustu edo desirei lotuta dago; eta beltza, lanerako gaitasunari.

# OTSAILA



## OTSAILAK 19

**KIROLEKO LGTBI+FOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

## LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: NIRE AITA ERGELA DA – KIROLEKO LGTBFOBIAREN AURKAKO EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



## AURKEZPENA

1961eko otsailaren 19an Justin Fashanu jaio zen, futbol-jokalari profesionala, jokalari zen garaian homosexual izatea onartu zuen bakarra. Azkenean, 37 urterekin bere buruaz beste egin zuen, jasotako presioaren eta homofobiaren ondorioz.

## HELBURUAK

- Kiroletan izaten den LGTBI+fobiari buruz gogoeta egitea.
- Erreferenteak ematea.

**1 30'**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Artikulu luzeak moztea edo ikasleen artean banatzea gomendatzen dugu.



NOLA JARDUN

## ZER DIO PRENTSAK?

Ikasleak taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari egungo albiste bat emango zaio, kirolaren eta dibertsitate sexual nahiz generokoaren arteko loturari buruzkoa. Behin artikuluak irakurtzen dituztenean, gainerako ikasleei aurkeztuko diete albistea, eta mahai-inguru bat edo gogoeta egitera animatuko ditugu.

- Fútbol y homofobia. (https://www.jotdown.es/2016/05/armario-del-futbol-espanol/)
- JJ.OO e intersexualidad. (https://www.vice.com/es/article/537jpz/juegos-olimpicos-transgenero-intersexual-problema-caster-semenya)
- Referentes trans* en el deporte. Una forma de alejar la LGTBI+fobia. (https://www.eldiario.es/canariasahora/sociedad/alba-palacios-transfobia-referentes-lgtbi_1_1691165.html)

Horrez gainera, kasu zehatzei buruzko informazio gehiago bilatzeko eska dakieke, artikuluetan aipatzen direnetatik abiatuta.

GOGOETA

Hona hemen mahai-ingururako edo gogoetarako egin daitezkeen zenbait galdera:

- Ikusi al duzu inoiz eraso fisikorik edo hitzezkorik kirolean?
- Zer ezaugarri zela-eta gertatu zen?
- Zergatik erabiltzen dira LGTBI+ dibertsitateko ezaugarriak iraintzeko?
- Izan al daitezke kirol gehienak mistoak?
- Zergatik ez da hala? Zergatik da garrantzitsua hori aldatzea? Zer egin liteke, tratu desberdina emanez desberdinkeriarik ez gertatzeko?
- Zure ustez, zergatik daude kirol batzuk maskulinizatuta (hau da, mutilenak direla jotzen da) eta beste batzuk feminizatuta (alegia, gehienbat emakumeek eginak)?
- Nola lotuko zenuke hori genero-estereotipoekin?

Beste LGTBI+ erreferente batzuk kirolean:

- Renée Richards. Tenislaria.
- Jessica Millamán. Hockey-jokalaria.
- Jesús Tomillero. Futbol-arbitroa.

# MARTXOA



## MARTXOAK 8

### EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: BI HOBETO, BAKARRA BAINO – EMAKUMEEN EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



## AURKEZPENA

1857ko martxoaren 8an, New Yorkeko oihal-fabrika bateko ehunka emakume kalera atera ziren, gizonen aldean soldata baxuagoak kobratzen zituztela--eta protesta egiteko. Zenbait hamarkada geroago, Simone de Beauvoir idazleak hau idatzi zuen: “Emakume ez da jaiotzen; egin egiten da”. Esaldi horrekin, azaldu nahi zuen hau zela emakume izatea: zenbait rol, jarrera eta espektatiba zehatzetan heztea eta eratzea, jaiotzean batek dituen genitaletatik harago. Hala, gaur egun feminismoek aldarrikatzen dute modu askotara izan daitekeela emakumea: emakume trans*-a, zis-a, intersexuala, bisexuala, lesbiana, bollera, heterosexuala, indigena, kosmopolita...

## HELBURUAK

- Emakumeen dibertsitatea ikusaraztea.
- Erreferenteak ematea.

**ordu 1**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Azken gogoeta talde handian egin daiteke.



NOLA JARDUN

## KARTA JOKOA

Ikasleak taldetan banatu, eta talde bakoitzari karta pila emango zaizkio, batzuk argazkidunak (Eranskina I. A), eta beste batzuk azalpendunak (Eranskina I. B). Zenbat talde dauden, hainbeste karta-joko egin beharko dira.

Lehenbiziko piloko kartek emakume ezagunen argazkiak dituzte; hain zuzen, LBTI+ kolektiboko erreferente diren askotariko emakumeenak. Emakume bakoitzaren bi argazki daude. Buruz behera jarriko dira, eta berdinak direnak aurkitu beharko dituzte. Beste piloko kartetan, emakume horien izena eta bakoitzari buruzko azalpentxo bat ageri da, hala bizitzarena nola lorpenena. Karta horiek gora begira jarriko dira.

Behin lehenbiziko piloan berdinak diren kartak aurkitzen dituztenean, beste piloan (izenak eta azalpenak dituzten kartetan) argazki bakoitzeko emakumea nor den asmatu beharko dute, eta kartak dioena irakurri (asmatu duten jakiteko, kartari bira eman, eta argazki bera duen ala ez ikusi beharko dute).

Talde guztiek amaitzean, galdetuko diegu ea emakume horietako zenbat ezagutzen zituzten eta ea beren ustez garrantzitsua den jakitea askotariko emakumeak daudela.

GOGOETA

LBTI+ kolektiboko emakumeen dibertsitatea aldarrikatzeak ez du esan nahi alde batera uzten direnik emakume zisexual eta heterosexualen aldarrikapen eta borrokak. Emakume guztiak bizi dira oraindik ere sistema eta gizarte patriarkal batean, desparekotasun- eta diskriminazio-egoerak iraunarazten dituena. Estrategia gisa, aliantzak eta puntu komunak aurkitzea lortu behar da, aldarrikapenak bateratzeko eta elkar osatzeko.



# APIRILA



## APIRILAK 26

### LESBIANEN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: NEU NAIZ BERE NESKA – LESBIANEN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



## AURKEZPENA

2008an, apirilaren 26a lesbianen ikusgaitasunaren eguna izatea erabaki zen. Ordutik, egun hori erabiltzen da aldarrikatzeko asko direla emakume*[4] lesbianak; izan ere, gure sistema heteropatriarkalak diskriminatu edo ikusezin bihurtzen ditu bi aldiz: emakume izateagatik eta gizonenganako desirarik ez sentitzeagatik. Hortaz, lesbiana gazteak zilegitasunez bizi daitezen, garrantzitsua da erreferenteak ateratzea argitara.

## HERBURUAK

- Errealitate lesbikoak ikusgai egitea.
- Lesbianismoari buruzko ezagutza sortzea.

**ordu 1**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Plataforma birtual batera igo daiteke (Kahoot edo Quizizz, adibidez) edota modu analogikoan egin daiteke.



4 Izartxoa sinbolo gisa erabiltzen da, ondoan duen kontzeptuaren barneko dibertsitatea aldarrikatzeko. Platero (2012) hasi zen izartxoa erabiltzen, horren bidez ikusgai egiteko askotariko moduak daudela trans* bizitzeko; eta euskal mugimendu feministak, adibidez, ideia hori bere egin eta estrategikoki erabiltzen du emakume izateko dauden askotariko moduak aldarrikatzeko (zis-a, trans*-a, arrazializatua, desgaitasunaren diagnostikoa duena edo ez duena, eta beste hainbat eta hainbat, dibertsitate handia baitago) (2018).

NOLA JARDUN

## TRIVIAL LESBIKOA

Trivial jokoaren antzeko zerbait proposatzen da: lesbianismoari buruzko galderak, eta galdera bakoitzerako zenbait erantzun aukeran (Eranskina II). Lehiatu ondoren, taldeka edo bikoteka jarri, eta informazio gehiago bilatuko dute galde-erantzun bakoitzerako, eta gero, taldean azalduko dute:

- Zergatik da horrelakoa?
- Nor da?
- Zertan jarduten du?
- Zer gertatu zen?
- Eta abar...

Hau da, galdera bakoitza bere testuinguruan jarriko dute.

GOGOETA

Oraindik ere ezjakintasun eta aurreiritzi asko daude lesbianen bizitzen errealitateari buruz, jardunei buruz, osasun-egoerari buruz eta abar. Interesgarria izango litzateke ikasleek berek esatea lesbianen zenbat erreferente dituzten, bai eta haiei buruz zer estereotipo dituzten esatea ere.



# MAIATZA



## MAIATZAK 17

### LGTBI+FOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

## LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: URTEBETETZE-FESTA “NORMALA” – LGTBFOBIAREN AURKAKO EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



## AURKEZPENA

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea eta bisexualitatea gaixotasuntzat hartzeari utzi zion. Hala ere, oraindik ere homosexualek eta bisexualek indarkeria--egoera edo indarkeria-une asko bizi dituzte. Bai eta zisexualak eta heterosexualak ez diren gainerako sexualitateek ere, hala nola trans*, intersexual, asexual eta ez-bitarrak direnek.

## HELBURUAK

- Egoera LGTBI+fobikoak identifikatzea.
- Diskriminazio eta desberdinkerien aurka erantzuteko mekanismoak garatzea.

**2 ordu**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Komeni da ikusaraztea egoera baterako ez dagoela erantzun bakarra, baizik eta erantzun asko egon daitezkeela, eta elkarrekin konbina daitezkeela. Era berean, ohartarazi behar da zenbat eta erantzun-mota gehiago eman, orduan eta aukera gehiago izango ditugula arrakasta izateko. Garrantzitsuena da ikusle huts gisa ez jokatzea (konplize izango ginateke, orduan) eta nolabait geure ahalmenen arabera zerbait egitea.

Horrez gainera, garrantzitsua da ikasleek bereiztea zein planteamendu egingo lituzketen benetan eta zein ez. Zintzotasun-ariketa bat egin behar dute, nork bere buruarekiko eta lantzen ari diren gaiekiko.

## NOLA JARDUN

### EGOERA HIPOTETIKOAK ETA/EDO ROLE PLAYING-A

Taldetan jarrita, pertsona hipotetiko baten zenbait ezaugarri definituko dituzte; pertsona hori beren adinekoa eta beren testuingurukoa izango da. Ezaugarri hauek definitu beharko dituzte:

- Genero-identitatea: ez-bitarra, emakumea, gizona, genero jariakorra...
- Genitalak: intersexuala, alua, zakila...
- Genero-adierazpena: androginia, maskulinitatea, feminitatea...
- Orientazio sexuala: lesbiana, gay-a, pansexuala, bisexuala, heterosexuala...

## GOGOETA

Egoera LGTBI+fobikoak mota askotakoak izan daitezke, hau da, modu sotilean gerta daitezke, norbait alde batera utzita, edo indarkeria fisikoa nahiz hitzezkoa erabiliz, gustu txarreko txantxak eginez, goitizenak/etiketak jarriz, eta abar. Denak dira indarkeria-modu bat (sinbolikoa, egiturazkoa, zuzenean egina...) eta erasotzat jotzen dira.

Era berean, garrantzitsua da erantzuna emateko eta gogoeta egiteko garaian ikasleek egoera horren biktimaren ikuspegia hartzea, aintzat hartzea arazoaren muina ez dagoela hark egiten edo adierazten duen horretan, baizik eta hori arazo bihurtzen duten pertsonetan dagoela; hau da, garrantzitsua da ikasleei ikusaraztea erasotzaileen aurkako erantzunak zenbat eta kolektiboagoak eta komunitarioagoak izan, orduan eta efektiboagoak eta iraultzaileagoak direla.

Hala, esate baterako, mutil bat eskolara soineko bat jantzita joan eta talde txiki batek barre egiten badio, hurrengo egunean taldekide guztiek soinekoa eramaten badute jantzita, garrantzia kenduko zaio barregarritzat hartutako egoera horri, eta zilegi bihurtuko da aukera hori.

Pertsona hori beren ikaskidea dela pentsatu beharko dute, eta egoera gatazkatsu gertagarri bat bizi duela. Behin deskribapenak idazten dituztenean, taldeek trukatu egingo dituzte. Iritsi zaien planteamendua irakurri eta ulertu egin beharko dute, eta ondoren, arazo horretarako irtenbide errealista zehatz bat proposatu. Kontuan izan behar dute berak ere protagonista direla, hau da, gatazka hori ikusi dutela eta hori konpontzeko taldean zerbait egin behar dutela.

Bururatzen zaizkien aukera guztiak idatzi ondoren, elkarrekin eztabaidatu eta hausnartuko dute ea proposamen horiek egingarriak diren, errealak diren eta/edo aukera alternatiborik badagoen.

Komeni da aipatzen diren aukera guztiak arbelean idazten joatea, ikusteko ea irtenbide horietako bat beste kasuren batean baliagarria izan daitekeen.

Beste modu batera ere jardun daiteke: dinamikaren lehen zatian pertsonaia eta egoera gatazkatsua imajinatu, eta gero, role-playing bat eginez, rolak banatuta, erantzunak antzeztu. Eztabaida-leku edo foro antzeko bat ere sor daiteke, ikasle gehiagok proposatu eta/edo antzeztu ahal izan ditzaten beren erantzunak.

Dinamika amaitzeko, honako bideo hau ikustea gomendatzen dugu. Eraso bati erantzuteko modu bat proposatzen du: (2011). Levántate contra la homofobia.

(https://www.youtube.com/watch?v=vWNqv0O7V8Q)

# EKAINA



## EKAINAK 28

### LGTBI+ HARROTASUNAREN EGUNA

# LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: AHOBEROAK ISILARAZI – LGTB HARROTASUNAREN EGUNA

por TERESA CASTRO @tcastrocomics



## AURKEZPENA

1969ko ekainaren 28ko gauean, Stonewall Inn tabernako (New York) istilu ezagunak gertatu ziren. Taberna hartan, gay-ak, lesbianak, travestiak, transexualak eta abar bildu ohi ziren, beren ekonomia-egoera eta arrazagatik bazterkeria-egoeran bizi zirenak, eta gau hartan poliziaren gehiegikerien aurka altxatu ziren, ohikoa baitzen poliziak jazartzea eta haien aurka indarkeria erabiltzea. Hori hartzen da askapen sexualaren aldeko eta genero-identitateen dibertsitatearen aldeko lehen altxamendutzat. Egun hura mugarri historikoa izan zen LGTBI+ komunitatearentzat, eta harrezkero, "Gayen Harrotasunaren Eguna" esaten zaio, edota "LGTBI+ Harrotasunaren Eguna", edota, besterik gabe, "Harrotasunaren Eguna" hizkera adierazkorragoa erabiliz.

## HELBURUAK

- Sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko borrokari buruz kontzientzia piztea.

**3 - 4 ordu**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Planteatu jarduera hau logika honi jarraituz: gogoeta, eztabaida, motibazioa eta ekintza. Entzun ondo ikasleek zer dioten, eta bideratu, norberak jarritako helburuak lor ditzan.



NOLA JARDUN

## HARRO GAUDE!

Animatu ikasleak talde-ekintza bat antolatzera eta egitera, 1969ko gau hartan egin zuten bezala, sexu- nahiz genero-askapenaren alde eta LGTBI+ pertsonen eskubideak duintzeko.

Adibidez:

1. Kartoia moztu eta armairuak eraiki daitezke, eta ikastetxeko ikasle guztiak haietan zehar igarotzera animatu, goiburutzat hau hartuta: "Neu ere armairutik atera naiz, borroka honen alde egiteko".
2. Eredu heterosexualak soilik erakusten dituzten iragarkiak azter daitezke, eta iragarki horiek berreraiki/antzeztu, dibertsitatea erakutsiz.
3. Sare sozialetan kanpaina bat has daiteke, traol edo hashtag bat eta/edo bideo bat sortuz.

GOGOETA

Jarduera egin ondoren, ondo legoke ebaluazio edo gogoeta kolektibo bat egitea, sortze-prozesuan eta jarduera egiteko unean bizi izandakoaz.



# UZTAILA



## UZTAILAK 14

### GENERO EZ BITARRAREN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

**AURKEZPENA**

Gaur egungo sexu-genero sistema, nagusiki, bi aukera dikotomikotan banatuta dago, hau da, sistema bitarra da, gizonak eta emakumeak (zis nahiz trans) baitira protagonistak. Baina bi aukera horietatik harago, dibertsitate handiko errealitate, identitate eta/edo adierazpenen sorta zabal bat dago. Historian zehar eta munduan barrena, kultura guztietan, beti izan dira kategoria bitarretan jaso ezin diren hainbat eta hainbat ezaugarri: androginia, anbiguotasuna, queer izatea, aukera bitarrekiko subertsiboa izatea... Hala ere, badirudi Mendebaldean orain hasi direla entzuten horrelako ahotsak, hala nola Sam Smith abeslariarena.

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: KROMOAK ETA AUTOAK – GENERO EZ BITARRAREN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



# ABUZTUA



## ABUZTUAK 31

### ELKARTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

AURKEZPENA

Gizakion dibertsitatea gizarte eta kulturen zerizanaren parte da, eta hortaz, baita gizakion elkartasuna ere. LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko borrokak eta lorpenak –eta haietako askok bizirik irautea– ez ziren posible izango elkartasunik gabe. Dela banakoa bizirik irauteko elkartasun-keinuak, dela kolektiboki bizitzeko elkartasun-keinuak. Horren adibide dugu Malagako herri batek 2020ko ekainaren 28rako erakutsitakoa (ikusteko klikatu hemen).

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: DINOSAUROEK EZ DUTE GIMNASIARIK EGITEN – ELKARTASUNAREN EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



# IRAILA



## IRAILAK 23

BISEXUALITATEAREN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: GOZOA ETA GAZIA – BISEXUALITATEAREN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

TERESA CASTRO @tcastrocomics



## AURKEZPENA

Honela definitzen da bisexualitatea: erakarpen sexuala eta/edo erromantikoa, norberaren genero-identitate bereko pertsonenganako eta beste identitate batenganako, izan pertsona hori trans* pertsona edo izan zis pertsona. Batzuetan, pansexualitate hitzarekin nahasten da, baina azken hitz horrek bere baitan hartzen ditu bai bisexualitatea eta bai genero bitarretatik haragoko beste edozein genero-identitate. Pertsona bisexualak har daitezke heterosexualtzat nahiz homosexualtzat, zer harreman-mota duten kontuan hartuta, eta horregatik, lan handiagoa egin behar da haiek ikusgai bihurtzeko.

## GOMENDIOAK

Oso garrantzitsua da eztabaida-garaian hitz egiteko txandak errespetatzea. Gainera, hitz egitea kostatzen zaienek ere parte har dezatela saiatu behar dugu, haiei ere hitza emanda. Eztabaida bakoitzaren ondoren, dinamizatzaileak baloratu beharko du ea lortutako gogoeta egokia den aurreiritzia zalantzan jartzeko edo ezeztatzeko. Egokia ez bada, gogoeta hori hankaz gora jarriko duen ideia bati buruz hausnartzera bultzatuko ditu ikasleak. “Gogoeta” izeneko hurrengo atalean zenbait argudio ematen dira esaldi bakoitzerako.

## NOLA JARDUN

### TERMOMETROA

Talde osoa zutik jarriko da, gelaren erdian. Gelaren alde bat BAI/EGIA adierazteko erabiliko da, eta beste aldea, EZ/GEZURRA adierazteko.

Dinamizatzaileak esaldi bat esango du (behean adierazita daude); orduan, pertsona bakoitzak horri buruz gogoeta egin beharko du, eta dagokion tokian kokatu. Esandakoarekin ados badago, “BAI/EGIA” adierazten duen aldean kokatuko da, eta ados ez badago, “EZ/GEZURRA” adierazten duen aldean.

Ondoren, eztabaida egingo da bi aldeen artean. Bakoitzak hori zergatik pentsatzen duen azaldu beharko du, eta bere izenean bakarrik hitz egin ahal izango du. Denak alda daitezke iritziz. Iritzia aldatzen duenak beste aldera igaro beharko du. Hona hemen zenbait esaldi:

- Bisexualitatea modan dago.
- Batzuek bisexualak direla diote, atentzioa emateko.
- Pertsona bisexualek gehiago ligatzen dute besteek baino.
- Pertsona bisexualak biziotsu hutsak dira.
- Pertsona bisexualak halakoak dira, ez dakitelako zer gustatzen zaien.
- Neska bisexual gehiago dago mutil baino.

Esaldi bakoitza landu ondoren, ikasleak berriro ere gelaren erdira itzuliko dira, hurrengo esaldia entzun eta dagokien tokian kokatzeko.

## HELBURUAK

- Errealitate bisexualak ikusgai egitea.
- Bisexualitateari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak hartu eta argudiatzea, haietaz eztabaidatzea eta gogoeta egitea.

**ordu 1**
**(ggb)**



## GOGOETA

- Bisexualitatea modan dago: pertsonek gero eta askatasun handiagoa dute harreman afektibo-sexualak izateko, beste pertsonaren generoa zein den axola gabe. Hori dela-eta, errealitate horiek gero eta gehiago ikusten dira.
- Batzuek bisexualak direla diote, atentzioa emateko: jendeak ez du norbera nabarmentzeko eta onespena lortzeko tresnatzat erabiltzen bisexualitatea; izan ere, ezaugarri horrek bazterkeria eta diskriminazioa sor dezake. Ez da gizartean goraipatutako ezaugarri bat, ez du gizarte-pribilegiorik ekartzen.
- Pertsona bisexualek gehiago ligatzen dute besteek baino: gehiago edo gutxiago ligatzea beste faktore batzuen araberakoa da, hala nola nortasuna, jarrera eta ligatzeko trebetasunak, bai eta beste pertsonaren onespena eta desira ere. Gainera, kontuan hartu behar da ez gaituela generoak soilik erakartzen, baizik eta beste aldagai batzuek ere eragina dutela pertsonak gustukoak izate horretan. Hortaz, gerta daiteke pertsona heterosexual batek askoz gehiago ligatzea bisexual batek baino.
- Pertsona bisexualak biziotsu hutsak dira: pertsona bat bisexuala izateak ez du esan nahi harreman sexual gehiago dituenik bete orientazio sexual batekoek baino. Gainera, heteropatriarkatuak markatutako roletatik kanpo ateratzen diren jokabide guztiak aipatzeko erabiltzen da “biziotsu” hitza; adibidez, horixe esaten zaie sexu-harremanak oso sarri dituzten emakumeei eta beren desira beldurrik gabe agertzen dutenei.
- Pertsona bisexualak halakoak dira, ez dakitelako zer gustatzen zaien: gerta daiteke pertsona batek bere desiraren orientazioari buruz zalantzak izatea bere bizitzako garai batean, baina pertsona bisexual gehienek argi dute bi generoekiko sentitzen dutela erakarpena, eta genero bakoitzarekiko erakarpen--maila desberdina da pertsona bakoitzarengan.
- Neska bisexual gehiago dago mutil baino: horixe diote datuek, gizon bisexualak halako bost direla emakume bisexualak, baina horrek erakusten du maskulinitate hegemonikoak bultzatuta gizonezkoek malgutasun gutxiagoz bizi dutela beren sexualitatea eta zailtasun handiagoak dituztela jendaurrean adierazteko, horrek pribilegio-egoera galtzeko arriskua ekarriko diela sentituta.

# URRIA



## URRIAK 26

### INTERSEXUALITATEAREN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: GOIAN ETA BEHEAN – INTERSEXUALITATEAREN IKUSGAITASUNAREN EGUNA

TERESA CASTRO @tcastrocomics



## AURKEZPENA

1996ko urriaren 26an, Estatu Batuetako Boston hirian, intersexualen kolektiboaren lehen protesta gertatu zen. Ezaugarri fisiko sexualekin lotutako errealitate hauek ezezagunak dira oraindik jende askorentzat. Pertsona intersexualek eskubidea dute beren gorputzaren eta beren identitatearen gainean erabakitzeko, eta beren kabuz erabakitzeko tratamendu edo ebakuntzarik nahi duten ala ez. Horregatik, 2006tik, Espainian ezin zaio pertsona adingabe bati bere genitalak aldatzeko ebakuntzarik egin, baldin eta bizia arriskuan ez badu edo osasun-kontuengatik ez bada behintzat.

**2 ordu**

**(ggb)**

## GOMENDIOAK

Ezinbestekoa da dinamika hau gure taldearen hizkuntza-mailara eta ezagutzetara egokitzea. Era berean, garrantzitsua da aurkeztutako irudien artean aukera egitea, beharrezkotzat jotzen bada.

Amaitzean, intersexualitatearen gaia pixka bat gehiago sakontzeko eta fokalizatzeko, bideo hau ikus daiteke: “Conexión Samantha”. Egia da programa horrek ez duela lortzen intersexualitateari buruzko trataera erabat egokia egitea, zenbait kontzeptu nahasten dituelako (hala nola identitate ez-bitarrak eta intersexualitatea) eta intersexualitatea patologiatzat hartzen duelako, baina errealitate intersexualen dibertsitatea erakusten du behintzat, bai eta erreferenteak ere.

## HELBURUAK

- Askotariko gorputzak daudela aintzat hartzea eta horretaz kontzientzia hartzea.
- Gorputzen eta edertasunaren estereotipoei buruz gogoeta egitea.
- Errealitate intersexualak ikusgai egitea.

## GOGOETA

Kontua da ikasleei ikusaraztea gorputz guzti-guztiak direla egokiak eta denak izan daitezkeela desiragarriak, salbuespenik gabe; pertsona horiek ez daudela oker (pertsonak berak hala esaten ez badu behintzat) eta haiek gehiago edo gutxiago maitatzea hedabideen eraginaren ondorioa dela.

# ASKOTARIKO GORPUTZAK. IKUS DITZAGUN!

Jarduera hau ikastalde osoarekin egin daiteke, edota talde txikitan, binaka nahiz bakarka, baldin eta gero erantzunak talde handian lantzen badira. Galdera hauek egingo zaizkie ikasleei:

- Nolakoa uste da izan behar dutela nesken gorputzek?
  Eta mutilen gorputzek?
  Horretarako, bi zutabe egin daitezke: "femeninotzat hartzen diren kontuak" VS "maskulinotzat hartzen direnak". Gai hauei buruz hitz egitea da asmoa: azal leuna izatea; ile osasuntsua izatea; "proportzio oneko" gorputzak izatea; bular handiak izatea; gihar indartsuak izatea; genitalitateari buruzko usteak, pertsona guztiak zisexualak edo ez-intersexualak direla uste izatera bultzatzen dutenak; etab.
- Nolako neskak eta nolako mutilak agertzen dira iragarkietan edo sare sozialetan
  (Facebook, Instagram...)?
  Horrez gainera, nahi izanez gero, Instagramen ikasleek egiten dituzten jarraipenetako zenbait profil ikus daitezke, eta haien analisi txiki bat egin: irudi perfektuak, argi onaz eginak, arropa zaindua eta/edo kalitate onekoa, instagramerrak gauza gutiziatuak dituztela, ondo makillatuta eta arduraz orraztuta (edo "arduragabe" orraztuta), etab.
- Zuen ustez, pertsona gehienek horrelako gorputzak eta bizitzak dituzte?
- Zer dira estereotipoak?
- Orduan, zer edertasun-kanon daude gizartean?

Ondoren, gorputz-dibertsitateari buruzko irudiak ikusiko dituzte (Eranskina III) eta galdera hauei buruz hausnartuko dute:

- Zure ustez, ba al dago horrelako gorputzik?
- Zure eguneroko bizitzan aurkitu al ditzakezu horrelako gorputzak?
- Zein irudi gustatu zaizu gutxien? Zure ustez, zergatik ez zaizu gustatu?
- Zein irudik edo zerk eman dizute atentzioa?
- Zer nabarmenduko zenuke argazki hauetan?
- Zuri gustatuko al litzaizuke gorputz perfektua ez duen norbait?
- Zergatik uste dugu badakigula zer-nolako genitalak dituen norbaitek, ikusten ez baditugu ere? Zergatik dira hain garrantzitsuak?

Asmoa da inkontzienteki barneratuta ditugun edertasun-kanon arauemaileak zalantzan jartzea, bai eta desira-objektuak horien arabera planteatzea zalantzan jartzea ere.

# AZAROA



## AZAROAK 20

### HAURREN NAZIOARTEKO EGUNA ETA TRANSGENEROEN* OROIMENAREN EGUNA

LesbiANITA eta LGTB+kuadrilla: FUTBOLA GUSTATZEN ZAIZU? – TRANSGENEROEN OROIMENAREN EGUNA

TERESA CASTRO
@tcastrocomics



## AURKEZPENA

Alde batetik, 1959ko azaroaren 20an "Haurren Eskubideen Aldarrikapena" onartu zen, eta hortik dator egun hori haurren nazioarteko egun bihurtzea. Egun horretan, II. Mundu Gerran hildako haur guztiak oroitzen dira, eta oraindik ere erabateko autonomia aitortua ez duten –eta hori dela-eta zainpekoak diren– guztien ongizatea eta garapena bermatzeko saiakera egiten da. Beste alde batetik, egun hori trans* pertsona guztien oroimenaren eguna ere bada, Rita Hester izeneko trans* emakume afroamerikarraren omenez, trans* izateagatik hil baitzuten eta haren kasua ez baitzen errespetuz erabili hedabideetan. Bi ospakizun horiek bilduta, trans* haurren eskubideak aldarrikatu beharra jarriko da mahai gainean, eta patologiatzat har ez dadin eta hala etorkizun berdinzaleago bat lor dadin historian zehar egin den borroka ere azalduko da.

## GOMENDIOAK

Dokumentala ikusi aurretik, azaldu testuingurua.

**1 30'**

**(ggb)**

## HELBURUAK

- Trans* pertsonen egoerari buruz kontzientzia hartzea.
- Pertsona bakoitzak bere burua zer generorekin identifikatzen duen onartzea.
- Ulertzea ezinbestekoa dela oraina berdinzaleagoa izatea lortzea, etorkizunera begira.
- Trans* adingabeak zaintzeko konpromisoa kolektibo egitea.



NOLA JARDUN

## NIRE SAMURAI TXIKI HANDIA

